


## EUSKAL HERRIKO IBAIAK



### •Atlantiar isurialdeko ibaiak:

- Laburrak dira, mendiak itsasotik gertu daudelako.
- Ur-etorri berdina dute beti, hau da, ur-kantitate berdintsua urte osoan zehar.
- Aldapa handietatik zehar jaisten dira ibilgu osoan.

### •Mediterraneanar isurialdeko ibaiak:

- Luzeak dira, mendietatik Ebrorainoko distantzia handiagoa delako.
- Ur gehien dakarten urtaroak udaberria eta udazkena dira. Udan oso ur gutxi ekartzen dute.
- Aldapa leunagoetatik jaisten dira ia ibilgu osoan.

## IBAI BATEN ARROA AZTERTZEKO GIDA

- Ibai nagusiaren izena eta sorlekua (mendia, mendilerroa...) eta ibaiadarrak
- Zein isurialdetakoa den
- Ibaiaren ezaugarriak: luzerak...
- Kanal eta urtegiak, halakorik bada.
- Pasatzen dituen hiri eta herriak
- Uren aprobetxamendua
- Kutsadura: arrazoiak.

## ***EUSKAL HERRIKO ARROAK***

Arro edo haran bat: mendi arteko leku behe bat da. Horregatik doaz ibaiak bertatik. Euskal herria oso menditsua denez, arro asko ditu, eta bertatik igarotzen diren ibaien izena dute askotan; Oria arroa, Ibaizabal arroa... Beste batzuetan ez da horrela gertatzen; Baztan, Erronkari, Gernika...

## ***HARANEN EZAUGARRIAK***

### **Kantauri isurialdekoak:**

- Laburrak eta estuak.
- Itsasora irekiak.
- Aldapa handiekin.
- V itxurakoak.

### **Mediterraneo isurialdekoak:**

- Zabalak.
- Ebro ibaira irekiak.
- Aldapa gutxi eta lautada zabalekoak.
- U itxurakoak.

## ***KOSTALDEA***

Itsasoaren ondoko lurrari deitzen diogu kostalde, itsasalde edo itsasertza. Forma eta osagai desberdinak:

**Labarra (amildegia):** goitik behera ebakitako itsas bazterra

**Lurmuturra:** itsasoan barneratzen den lur-zatia.

**Delta:** urak ekarritako harri, harea eta abarrez ibaien amaieran sartzen den triangelu itxurako lursaila.

**Golkoa:** Lurrerantz sartzen den itsasoaren aldea.

**Badia:** golko txikia

**Portua:** itsasontziei babes emateko kostaldeko zabalguneko gordea.

**Irla:** alde guztietatik urez inguratua dagoen lur-zatia.

**Faroa:** itsasargia. Nabigazioa gidatzeko erabiltzen den edozein sistema

**Hondartza:** itsasertzean hondarrez beteriko lurra.

**Istmoa:** kontinente edo penintsula bat kontinente batekin lotzen dituen lur-zatia

## **KLIMA**

Urtaroetan zehar eta urte askotan zehar izaten den eguraldiari klima deritzo.

Klima bat aztertzeko; euriei, tenperaturari, haizeei, hezetasunari eta presioari erreparatu behar zaie.

Klimari buruzko informazioa batzen dituzten grafikoei **klimograma** deritze, eta tenperatura eta eurien datuak jasotzen dira

### **KLIMOGRAMAK AZTERTZEN**

#### **Temperaturen grafikoa**

1. Paper laukidunaren gainean, elkar gurutzatzen diren bi lerro marrazten dira: horizontala bat eta bertikala bestea. 90°ko angelua eratuz.
2. Lerro bertikalean batez besteko tenperaturak adierazten dira. Horizontalean, berriz, hilabeteak.
3. marrazkiak izango dira

#### **Eurien grafikoa**

1. paper laukidunaren gainean bi ardatz marrazten dira. Horizontalean hilabetean jarriko ditugu, eta bertikalean, berriz, euriak.
2. blokeak izango dira

### **KLIMA MOTAK**

**Klima ozeanikoa:** Neguak ez dira oso hotzak eta udak epelak dira. Urte osoan egiten du euria. Kantauriar isurialdean eta Nafarroako eta Arabako iparraldeko zona batzuetan dago

**Klima mediterraneo-kontinental:** Neguak hotzak eta udak beroak dira. Euri gutxi. Nafarroa eta Arabako hegoaldean.

**Trantsiziozko klima:** aurreko bien nahasketa du. Araba eta Nafarroa erdialdean. Euri gutxi eta tenperatura leunak.

**Mendiko klima:** Neguak oso hotzak eta udak epelak dira. Elurteak izaten dira udazken eta neguan. Nafar eta Iparraldeko Pirinioetan eta Bizkaiko eta Gipuzkoako zona batzuetan (Gorbeia eta Aizkorrin)

Klimak paisaiak baldintzatzen dituen legez etxebizitzak eraikitzeko klima kontuan hartu behar denez Euskal Herrian desberdintasun handiko **etxebizitzak** aurki ditzazkegu.

### Itsasaldekoak

Baserriak:

- bi isuriko teilatuak.
- Hegal zabalak
- Batzuetan, goialdea adreiluzkoa eta egurrzko egitura
- atari eta balkoi zabala

### Zuberoa eta Nafarroako Pirinioetakoak

- Lau isuriko teilatuak, aldapa handikoak, arbelezkoak.
- Harrizko hormak

### Erdialdekoak

- Harrizko etxeak
- Bi isuriko etxeak

### Hegoaldekoak

- Materiala: lurra, adreilua eta pezoa.
- Isuri bakarreko teilatua, aldapa gutxikoa

